

## ESTALKIA ERABILTZEKO LAGAPEN-HITZARMENA, AUTOKONTSUMO PARTEKATURAKO EGUZKI-INSTALAZIO FOTOVOLTAIKO BAT JARTZEKO

Hauen artean:

### **A KOMUNITATE ENERGETIKOA**

ETA

### **B ERAKUNDEA**

\_\_\_\_\_ (-en), 2024ko \_\_\_\_\_(a)ren \_\_\_(a)n

Estalkien erabilera lagatzeko hitzarmenaren oinarrizko eredu orientagarria, higiezin horien titularren eta energia-komunitateen artean sinatuko dena eguzki-panel fotovoltaikoak instalatzeko, alde batera utzi gabe klausula gehiago edo gutxiago ezartzeko aukera kasu bakoitzaren berezitasunen arabera.

## BILDUTA

Alde batetik, **Komunitate Energetikoa** \_\_\_\_\_ (hemendik aurrera, **KE**), \_\_\_\_\_ IFK zenbakiarekin eta \_\_\_\_\_ helbideko egoitza sozialarekin, \_\_\_\_\_ zeinak ekitaldi honetan \_\_\_\_\_-en ordezkari izan duena, adinez nagusia, \_\_\_\_\_ IFZ zenbakia duena, erakundearen legezko ordezkari gisa, \_\_\_\_\_ notarioak emandako ahalordeen eskrituran jasotzen denez (**kasua izanda**), \_\_\_\_\_ protokolo zenbakiarekin, \_\_\_\_\_ (-en), 20\_\_ko \_\_ (a)ren \_\_ (a)n.

Beste aldetik, **B ERAKUNDEA** (hemendik aurrera, **ERAKUNDEA**), \_\_\_\_\_ IFK zenbakiarekin eta \_\_\_\_\_ helbideko egoitza sozialarekin, zeinak ekitaldi honetan \_\_\_\_\_ -en ordezkari izan duena, adinez nagusia, \_\_\_\_\_ IFZ zenbakia duena, erakundearen legezko ordezkari gisa, \_\_\_\_\_ notarioak emandako ahalordeen eskrituran jasotzen denez (**kasua izanda**), \_\_\_\_\_ protokolo zenbakiarekin, \_\_\_\_\_ (-en), 20\_\_ko \_\_ (a)ren \_\_ (a)n.

Bi aldeek elkarri aitortu diote, beren ordezkarien bidez, kontratatzeko legezko gaitasun nahikoa eta beharrezkoa eta, bereziki, dokumentu honetan jasotako baldintzetan hitzemandakoa.

## HAU ADIERAZI DUTE

- I. **A KOMUNITATE ENERGETIKOA** irabazi asmorik gabeko Elkarte / irabazi asmorik gabeko Kooperatiba bat da eta bere xedea, besteak beste, energia berriztagarria pertsonentzako energia erabilgarrian eraldatzen duten ekoizpen-bitartekoak sustatzea da, jasangarritasun ingurumen, sozial, ekonomiko eta justu baten esparruan.
- II. **B ERAKUNDEA** \_\_\_\_\_ aktibitatea gauzatzen du bere egoitza sozialean adierazitako udalerrian, eta adierazten du bere instalazioak dauden esparruan deskribatutako azalerek ez dutela kargarik, ezta okupatzailek edo inolako maizterrik ere, jabetza haiena delarik

III. Bi aldeek beharrezkotzat jotzen dute hitzarmen hau formalizatzea, zeina klausula hauen menpe egongo baita:

## KLAUSULAK

### 1. XEDEA

- 1.1. Hitzarmen honen xedea adostutako eta I. ERANSKINA – INSTALAZIOAREN DESKRIBAPENEAN zehaztutako azaleren erabilera **KE-ren** alde lagatzea da, zeinak **ERAKUNDEA-ren** jabetzako higiezinetan dauden. Lagapenaren helburua da **KE-k** sare elektrikora konektatutako instalazio fotoboltaiko bat egitea, AUTOKONTSUMO PARTEKATU konfigurazioarekin. Ekoizlea eta instalazioaren jabea **KE**. litzateke, eta kontsumitzaileak, **ERAKUNDEA** eta ezarritako baldintzak betetzen dituzten **KE-ko** bazkideak. **KE-k** konpentsatu behar du **ERAKUNDEA** II. ERANSKINAK – BALDINTZA EKONOMIKOAK ETA HITZARMENAREN IRAUPENA ezartzen duen bezala.
- 1.2. **ERAKUNDEA-ren** aldetik, hitzarmenaren xedea da bere instalazioetan sorkuntza fotoboltaikoko instalazio batez gozatzea, zeinak ahalbidetuko baitio energia elektrikoaren horniduraren kostua murriztea, azken kontsumitzaile gisa.
- 1.3. **KE-ren** aldetik, sorkuntza-instalazioaren jabe gisa, hitzarmenaren xedea dituen bazkideen artean sortutako energia banatzea da, AUTOKONTSUMO PARTEKATU-aren bitartez aurrezpenak sortu instalazio horretara lotestuta dauden bazkideentzat.
- 1.4. **KE-k** hitzartu du **energia-zerbitzu batzuekin** (hemendik aurrera, ZERBITZUAK) konpentsatuko diola **ERAKUNDEA-ri** estalikaren lagapenarengatik.

### 2. INDARREAN SARTZEA ETA IRAUPENA

- 2.1. Hitzarmen hau indarrean sartuko da aldeen artean, eta erabat loteslea izango da sinatzen den unetik aurrera.
- 2.2. Indarraldia zenbatzen hasteko data eraginkorra autokontsumo-instalazioaren alta ofizialaren data izango da, banatzailearen eta Espainiako Sare Elektrikoaren aurrean

eginikoa.

- 2.3. Hitzarmenaren iraupena II. ERANSKINEAN - BALDINTZA EKONOMIKOAK ETA HITZARMENAREN IRAUPENA adierazitakoa izango da.

### 3. SOBERAKINDUN AUTOKONTSUMOA KONPENTSAZIORIK GABEKOA

- 3.1. Konpentsazio gabeko soberakinak dituen autokontsumo partekatuko modalitatea 244/2019 Errege Dekretuan jasotzen da, zeinetan energia elektrikoaren autokontsumoaren baldintza administratiboak, teknikoak eta ekonomikoak arautzen diren.
- 3.2. Autokontsumo-instalazioa ekoizpen- edo sorkuntza-instalazio batek eta horretatik gertu eta horri lotuta dagoen kontsumo-instalazio batek osatzen dute, izan barneko sarean edo ez. Sorkuntza-instalazioa fotoboltaikoa izango da eta %100ean berriztagarria den energia ekoitziko du.
- 3.3. Instalazio honetan, **ERAKUNDEA** eta **KE-ko** bazkideak izango dira bazkide kontsumitzaileak, II. ERANSKINEAN adierazten den moduan.
- 3.4. Era berean, autokontsumoko sorkuntza-instalazioaren bazkide ekoizlea, titularra eta jabea **KE** izango da.
- 3.5. Konfigurazio mota horretan, ekoizpen-instalazioak sortutako energiaren parte bat bazkide kontsumitzaileak kontsumitzen du (hemendik aurrera, energia autokontsumitua), eta gainerakoa sare elektrikora isurtzen da (hemendik aurrera, energia isuria). Autokontsumo-instalazioko neurketa-ekipoen konfigurazioa indarreko araudian zehaztutakoa izango da.
- 3.6. Instalazioa dimentsionatzeko, kontuan hartu dira erabilgarri dagoen azalera osoa eta konektatuko den banaketa-sarearen baldintza teknikoak. **ERAKUNDEA-ren** kontsumorako neurrira egindako instalazio bat izango litzatekeenaren gainetik dimentsionatu denez, azken horrek onurak jasotzen ditu, energia autokontsumitua areagotzen baitu eta KE-ren bazkideak behai autokontsumitzeko aukera ematen du eta instalazioaren tamainua ratio €/kWp txikiago izateko ahalbidetzen du, instalazioaren efizientzia ekonomikoa handituz (amortizazio denbora txikiagoa eta TIR handiagoa).

- 3.7. Orduka ezagutu ahal izango dira sortutako energia, energia autokontsumitua eta sarera isuritako energia.
- 3.8. Instalazio fotoboltaikoak sortutako energiak berezko ezaugarri batzuk izango ditu, hala nola kantitatearen aldizkakotasuna eta aldakuntza eguneko orduetan eta urteko garaietan zehar, eguzki-erradiazioaren arabera. Horrek ez du inolako etenik ekarriko **ERAKUNDEA-ren** hornidura elektrikoan; izan ere, kontsumo-instalazioa hornidura-sareari konektatuta dago.

#### 4. **A KOMUNITATE ENERGETIKOAREN BETEBEHARRAK**

- 4.1. Autokontsumo-instalazioaren kostu guztia bere gain hartzea, instalazio fotoboltaikoaren jabe bakarra delako. // Autokontsumo-instalazioaren kostu partziala bere gain hartzea II. ERANSKINEAN - BALDINTZA EKONOMIKOAK ETA HITZARMENAREN IRAUPENA azaltzen den moduan.
- 4.2. Autokontsumo-instalazioaren altaren fase guztien ardura bere gain hartzea: kudeaketa administratiboa, kudeaketa tekniko, obraren zuzendaritza eta gremioen koordinazioa hitzarmena gauzatzen den bitartean.
- 4.3. Proiektua egingo duten langileak egokiak direla, prestakuntza dutela eta aproposak direla bermatzea; hau da, **A KOMUNITATE ENERGETIKOAK** betebeharra hartzen du kontratatuko dituen enpresa instalatzaileek beren betebeharrak betetzen dituztela bermatzeko, komunitatearen kontrola iritsi daitekeen tokiraino.
- 4.4. Autokontsumo-instalazioa egitea I. ERANSKINEAN - INSTALAZIOAREN DESKRIBAPENA adierazitako diseinu-ezaugarriei eta ezaugarri teknikoei jarraikiz; xede horietarako hirugarren bat kontratatu ahalko dute beren arrisku eta menturaren arabera.
- 4.5. Autokontsumo-instalazioa abiaraztea, sorkuntza-ekipamenduaren, neurketa-ekipoen konfigurazioaren, babesen eta abarren konexioa berrikusi ostean.
- 4.6. Ekipoen, instalazio fotoboltaikoaren, elektrizitate-enpresa banatzailearen eta dagokion beste edozein erakunde edo organismo eskudunen ziurtagiriak eta baimenak eskuratzea, **ERAKUNDEA-ren** eta **KE-ren** bazkideen autokontsumoari begira beharrezkoa denean,

baita energia soberakinak banaketa-sare elektrikora isurtzeko ere. Soberakin hauek fakturretan konpentsatu ahal izango dira **ERAKUNDEA-ren** merkaturatzailea ahalbidetzen baldin badu.

- 4.7. Instalazioko lanak eta mantentze-lanak egitea hitzarmenaren indarraldi osoan zehar, zuzenean nahiz horretarako azpikontrataturako hirugarrenen bidez, betiere konexio elektrikoetan egin beharreko doikuntzak eta aldaketak eginez, energia-hornidura segurua eta kalitatezkoa ematen dela bermatzeko.
- 4.8. **ERAKUNDEA-ri** sor dakizkiokeen eragozpenak minimizatzea instalazioa egiten den bitartean, hala nola zaratak, hornidura elektrikoaren behin-behineko etenak edo **KE-ren** langileek **ERAKUNDEA-ren** instalazioen parte okupatzea.
- 4.9. **ERAKUNDEA-ri** jakinaraztea **KE-koa** ez den langileren batentzako sarbide bereziren bat behar bada, instalazioa egiten den bitartean nahiz instalazioaren mantentze-bisitetarako.
- 4.10. **ERAKUNDEA-ri** jakinaraztea une oro proiektuaren egoerari eta hasierako berrikuspenei dagokienez sor litekeen edozein aldaketa.
- 4.11. **ERAKUNDEA-ri** jakinaraztea instalazioari edo instalazioaren beraren edo hirugarrenen segurtasunari eragin dion edo eragin diezaiokeen edozein gertaera.
- 4.12. Erantzukizun zibileko aseguru-poliza bat kontratatzea, autokontsumo- instalazioa egitearen ondoriozko zuzeneko arrazoiengatiko kalteak estaltzeko. **KE-k** instalazioa egiteko lanak azpikontratatzan baditu, enpresa instalatzaileak aseguru-poliza hori izan beharko du.
- 4.13. Erantzukizun zibileko aseguru-poliza bat kontratatzea, autokontsumo- instalazioaren lanen eta mantentze-lanen zuzeneko arrazoiengatiko kalteak estaltzeko. **KE-k** zerbitzu hori azpikontratatzan badu, mantentze-enpresak aseguru-poliza hori izan beharko du.

## 5. **B ERAKUNDEAREN BETEBEHARRAK**

- 5.1. I. ERANSKINEAN - INSTALAZIOAREN DESKRIBAPENA zehaztutako azaleraren erabilera baimentzea, instalazio fotoboltaikoa gauzatzeko.
- 5.2. **Autokontsumo-instalazioaren kostu partziala bere gain hartzea. II. ERANSKINEAN -**

**BALDINTZA EKONOMIKOAK ETA HITZARMENAREN IRAUPENEAN azaltzen den moduan.**

- 5.3. Instalazioa jarriko den azaleraren egoera ona bermatzea.
- 5.4. Instalazioetarako sarbidea baimentzea, **KE-k** izendatutako langileek instalazioa eraiki, instalatu, bertan lan egin edo mantendu ahal izateko.
- 5.5. **ERAKUNDEA-k** ezin du, zuzenean edo zeharka hirugarrenen bidez, instalazioan esku hartu, hura manipulatu, aldatu, lekualdatu eta inolako eraginik sortu **KE-ren** idatzizko eta aurretiazko baimenik ez badu. Salbuespen bezala ezartzen da estalkia konpontzeko obrak egin behar direnean premiazko beharreatatik (ur-sarrerak, itoginak, hausturak, etab.), **KE-ri** jakinarazi beharko zaio eta zentzuzko **X orduko** epea emanda.
- 5.6. Instalazioa dagoen azaleraren egituran eraginak sortzea eragozte, energia hornidura alda ez dadin (adibidez, panel fotoboltaikoei itzala ematen dien elementu berri bat instalatuta).
- 5.7. **KE-ri** jakinaraztea **ERAKUNDEA-ren** instalazioetan konponketaren bat egiteko beharra dagoenean, autokontsumo-instalazioaren elementuren bati eragiten badio edo eragin badiezaioke, **KE-k** kasu bakoitzerako beharrezkoak diren neurriak har ditzan, 5.5. puntuaren premiazko konpoketen kasuan bezala.
- 5.8. Hitzarmen hau egiteko momentuan beraien instalazioetan dauzkaten segurtasun-neurriak mantentzea.
- 5.9. Larrialdietan, ezinbesteko kasuetan eta/edo **ERAKUNDEA-ren** instalazioak kaltetzeko arriskua dagoen kasuetan, horrek **KE-ri** jakinarazi beharko dio ahalik eta lasterren.
- 5.10. **A KOMUNITATE ENERGETIKORA-ra** atxikitzea, **XX €-ko** kapitalerako **derrigorrezko/borondatezko** ekarpenarekin, estatutuek une bakoitzean zehazten dutenarekin batera, bi aldeek horrela adozten baldin badute, **bazkide kolaboratzaile** izaerarekin.
- 5.11. **KE-ri** jakinaraztea **ERAKUNDEA-ren** aldetik ohiko elektrizitate-kontsumoan egon daitezkeen aldaketa nabarmenak, baita potentzia kontratatua aldatzeko asmoa ere.

## 6. ZERBITZU ENERGETIKOAK

- 6.1. Hitzarmen honen barruan, **KE-k** konpromisoa hartzen du zerbitzu energetiko batzuk (hemendik aurrera, ZERBITZUAK) egiteko **ERAKUNDEA-ren** alde.
- 6.2. **KE-k** eskaintzen duen zerbitzu nagusia **ERAKUNDEA-rekiko** berehalako energia-hornikuntza da, autokontsumo-instalazioan dagoen energia emateko puntuaren bidez.
- 6.3. **KE-k** beharrezkoak diren bitartekoak jarriko ditu instalazio fotoboltaikoan sortutako energia ikusi ahal izateko, **ERAKUNDEA-ri** lotutako komunitate osoak horren berri izan dezan.
- 6.4. **ERAKUNDEA-k** hala eskatuz gero eta autokontsumo-instalazioaren kudeaketa-sistemak ahalbidetzen badu, **KE-k** instalazioan anomaliak daudela jakin ahal izateko bitartekoak jarriko ditu.
- 6.5. **KE-k** aukera emango du hitzaldi-konferentzia bat antolatzeke, **ERAKUNDEA-rekin** adostatutako datan, komunitate guztiarentzat (**ERAKUNDEA** barne), proiektuaren ezaugarriak azalduz, bere garrantzia, ondorioak, etab.

## 7. LAGUNTZA TEKNIKOAK

- 7.1. **KE-k**, xede horretarako gaitutako harremanetarako pertsonen bidez, beharrezkoak diren kontsultak, laguntza eta azalpenak emango ditu instalazioak eta horren bilakaerak bere bizitza erabilgarrian zehar planteatzen edozein alderdi administratibo eta teknikori buruz.
- 7.2. **ERAKUNDEA-k** *helbide@elektronikoa* helbidera idatzi beharko du, edo *telefono zenbakia* zenbakira deitu, berehalako arreta behar duen gaia bada.
- 7.3. **KE-k** zerbitzu hori urrunetik emango du, eta, hasiera batean, ez dira **ERAKUNDEA-ra** lekualdatzeak barne hartuko, egoeraren arabera **KE-k** beharrezkotzat jotzen duenean izan ezik.
- 7.4. **KE-k** ahalik eta lasterren erantzungo du.

## 8. ADIERAZPENAK ETA BERMEAK

- 8.1. Aldeek adierazi eta bermatzen dute hitzarmen hau egiteak ez duela hirugarrenen eskubiderik urratzen, eta ez duela berekin ekartzen haiek sinatutako alde zurreko



inolako akordio edo konpromisorik ez betetzea. Horrez gain, hitzarmena egiteko beharrezkoak diren eskubide, baimen eta lizentzia guztiak dituzte, baita beren xede sozialak garatzeko ere. Horiek horrela, baimen eta lizentzia horiekiko haiei aplikatutako baldintza eta betebeharrak guztiak betetzen dituzte, eta ez daukate inolako espediente edo auzirik martxan horien ondorioz. Era berean, ez dira konkurtsopean deklaratu eta ez da inolako prozedura edo eskaerarik abiarazi egoera hori deklaratzeko, eta ez da eskatu edo eskuratu konkurtso-egoeraren inolako adierazpenik haiei lotuta.

- 8.2. Atal honetan jasotako aldean adierazpenak eta bermeak erakundeek beraiek egin dituzte hitzarmen hau sinatzen den egunean, eta hitzarmenaren arabera, horiek betetzeko betebeharra dute, hitzarmena bukatu arte.

## 9. ALDEEN ARTEKO KOMUNIKAZIOA

- 9.1. Aldeetako bakoitzak legezko ordezkari bat edo gehiago izendatu beharko dituzte, baita harremanetarako pertsonak ere beren erakundearen barruan, hitzarmen honen xede den zerbitzua ematearen jarraipen-xedeetarako. III. ERANSKINEAN - ALDEEN ARTEKO KOMUNIKAZIOA, bi aldean datuak jasotzen dira, komunikazioetarako aintzat hartu beharrekoak, horien izaera zein den.
- 9.2. Aldeen arteko komunikazio garrantzitsu guztiak idatziz egin beharko dira, eta ezingo dira ahozko aginduak eman larrialdi-egoeretan ez bada; kasu horretan, ahoz egin ahal izango dira, eta ondoren, idatziz berretsi beharko dira, ahalik eta lasterren. Komunikazio guztiak dagokion aldearen arduradun batek edo eskuordetu duenak berretsi beharko ditu; eskuordetzea aldeaz aurretik jakinarazi beharko zaio beste aldeari.
- 9.3. Aldeen ordezkariak gaikuntza izango duten pertsona bakarrak izango dira, alde bakoitzaren izenean eta horien ordezkari gisa, hitzarmenaren exekuzioan zehar gauzatzen diren komunikazio, jarraibide, kontsulta, gorabeheren jakinarazpen eta abar guztiak egin eta jasotzeko. Hartara, beste pertsonak egin litzatekeen jarduketek ez dute inolako balio edo ondorerik izango.
- 9.4. Aldeei egoki bidalitako gisa joko dira adierazitako helbide edo zenbakietara bidalitakoak. Igorleak bermatu beharko du beste aldeak behar bezala jaso duela

komunikazioa, posta elektronikoa edo posta arruntaren bitartez. Igorleak ez balu berehalako egiaztapenik jasotzen erabilitako bitartekoaren bidez, komunikazio-sistemaren edozein atzerapen edo errorerengatik, komunikaziorako bide alternatiboak erabili beharko dituzte jasotze- egiaztapena lortu arte. Komunikazioa ondore gutzietarako egindakotzat joko da hura jasotzearen unean.

- 9.5. Aldeek jakinarazpena bidali ahalko diote besteari, arduradunei, helbideei edo zenbakiei buruzko datuak aldatzeko.

## 10. EZINBESTEKO KAUSAK

- 10.1. Aldeek ezingo diote besteari erantzukizunik exijitu hitzarmen honen ondoriozko betebeharrak erabat edo partzialki ez betetzeagatik, ez-betetzea ezinbesteko kausaren batengatik egin denean, Kode Zibilaren 1.105 artikuluan ezarritakoarekin bat.
- 10.2. Aldeek ahaleginik handiena egingo dute besteari ezinbesteko kausak jakinarazi eta ohartarazteko, baita, ahal den guztian, horren ondorio negatiboak edo kaltegarriak arintzeko ere. Ezinbesteko kasuetan, eragindako aldeak jakinarazi beharko dio besteari, ahalik eta arinen, eta nolana ere, **hirurogeita hamabi (72) orduko epean**, arazoa gertatu edo horren jakinaren gainean dagoenetik aurrera. Horretarako, dokumentu osatu batean kausak, aurreikusitako iraupena eta hitzarmen honen irismenaren gainean izan ditzakeen ondorioak zehaztuko ditu.
- 10.3. Aurreko paragrafoan adierazitako ezinbesteko kausaren jakinarazpena egin eta hurrengo **bost (5) egunen** barruan, ezinbesteko kausa deklaratu duen aldeak txosten osatu bat helaraziko dio besteari, kausak eta aurreikusitako iraupena azalduz, eta ezinbesteko kausaren ondorioak arintzeko komenigarritzat jotzen dituen neurriak proposatuz.
- 10.4. Ezinbesteko kausak irauten duen denbora guztian zehar, deklarazioa egin duen aldeak besteari informazioa eman beharko dio etengabe, bilakaerari eta aplikatutako konponbide posibleei buruz, halakorik bada.
- 10.5. Ezinbesteko kausatzat joko dira aurreikusi gabe gertatutako egoera guztiak, edo aurreikusi arren saihestezinak direnak, aldean borondatearen menpe eta haien kontroletik kanpo daudenak, eta aldeek saihestu edo arindu ezin dituztenak, baita aldeek beren betebeharrak osorik edo partzialki betetzea zuzenean eragozten

duzenak; betiere tartean eragindako aldearen arduragabekeriarik edo errurik ez bada. Honako hauek izan daitezke, adibidez:

- i. jatorri naturaleko gertakari katastrofikoak, hala nola lurrikarak, ekaitzak edo uholdeak.
  - ii. ekitaldi biolentoak, hala nola terrorismoa, iraultzak, matxinadak eta gerrak.
  - iii. aldeen enpresa-arloa gainditzen duten grebak, eta zeinen bukaera ez den haien borondatearen menpe edo
  - iv. agintaritza judizial edo administratibo eskudunen erabaki irmoak, zuzenean edo zeharka hitzarmenaren exekuzioa eragozten dutenak, eta betiere tartean eragindako aldearen axolagabekeriarik ez dagoenean.
- 10.6. Ezinbesteko egoera batek alde baten betebeharrak guztiei eragingo balie, hitzarmen honi dagokionez, edo betebeharren zati garrantzitsu bati, eta denboran etenik gabe mantentzen bada **laurogeita hamar (90) egunetik** gora, alde biek hitzarmen hau erabat indargabetzeko eska dezakete beste aldeari, **hamar (10) eguneko** aurretiazko abisu batekin.

## 11. ERANTZUKIZUNA

- 11.1. Hitzarmen honen sinatzaileek berariaz aitortzen dute hitzarmena zibila, alde bikoia, elkarren adostasunez eginga eta formala dela. Aldeetako batek ere ez du erantzukizunik izango beste aldeak Gizarte Segurantzarekin, Ogasun Publikoarekin edo beste edozein administrazioarekin (tokikoa, autonomia-erkidegokoa edo nazionala) izan ditzakeen harremanen gainean.
- 11.2. Halaber, aldeetako batek ere ez du erantzukizunik izango beste aldeak hitzarmen hau betetzeko egin behar izan ditzakeen inbertsioei dagokienez (ondasun higigarriak, higiezinak, langileen kontratazioa, etab.). Inbertsio horiek ez dute inolako kalte-ordainik sorraraziko hitzarmena amaitzen edo indargabetzen denean, horretarako arrazoia edozein izanik ere.
- 11.3. Hitzarmen honetako aldeetako bakoitzak beste aldeari dagozkion kalte-ordainak ordainduko dizkio hitzarmen honetan ezarritako betebeharrak ez betetzearen ondorioz jasanarazitako kalte-galerengatik, bat etorritik hitzarmenean bertan eta

indarreko legedian ezarritakoarekin.

- 11.4. Bere jarduketarekin hirugarren bat kaltetzen duen aldeak bere gain hartuko ditu hirugarren horrek exiji ditzakeen erreklamazio, betebeharrak, galera, kostu, kalte edo gastu guztiak, betiere kaltea sortu duen aldeak edo bere langile eta/edo azpikontratistek hitzarmen hau gauzatzean egindako edozein ekintza edo ez-betetzeren ondoriozkoak badira, zuzenean.

## 12. HITZARMENA INDARGABETZEA

- 12.1. Hitzarmen hau egoera hauetakoren batean indargabetu ahal izango da:
- i. Indarraldia eta egon litekeen luzapenak amaitzen direnean.
  - ii. Hitzarmen honen betebeharrak bat modu larrian hausten denean eta, bereziki, aldeetako batek ez badu betetzen edo gauzatzen hitzarmen honek dakartzen betebeharrak bat (funtsezko alderdiak direnean, edo larriki edo behin eta berriro hausten duenean) eta ez badu hitzarmen-hauste hori zuzentzen beste aldeak horretarako bidalitako errekerimendua jaso eta hurrengo  **hamar (10) egun**  baliogabetuta, albo batera utzi gabe kasuan egokitu ahal zitzaien kalte-galerengatik kalte-ordaina.
  - iii. Iruzurra egon dela hautematzekotan, aldeetako edozeinek zerbitzuak eten eta/edo hitzarmena berehala baliogabetu ahal izango du, eta egoera horren berri eman behar du adierazitako jakinarazpenetarako helbidean edo komunikazioak eta jakinarazpenak egiteko ezarritako bitartekoa erabiliz. Jakinarazpen hori iruzurraren egiaztagiritzat joko da, egokitze jotzen diren ekintza penal eta/edo zibilen kalterik gabe.
  - iv. Hitzarmena guztira betetzea ezindu egiten duen ezinbesteko egoera batek laurogeita  **hamar (90) egun**  jarraian mantentzen baldin bada.
  - v. Hitzarmen honetan emandako funtsezko adierazpenen bat faltsugatik aintzakotat hartzen baldin bada.
  - vi. Hitzarmen honen indarraldian zehar lege- edo arau-xedapenak aldatu egiten direnean edo xedapen berriak ezartzen direnean, baldin eta horiek ezindu egiten badute hitzarmena betetzea eta aldeek ez badute beste akordiorik egiten hitzarmenarekin aurrera jarraitzeko, bertan adierazitako baldintzetan. Kasu horretan, hitzarmena baliogabetuta geratuko da aldeetako batek besteari jakinarazten dionean ezinezkoa dela

- hitzarmena betetzea hori sinatzean zehaztutako baldintzetan.
- 12.2. Hitzarmen hau indargabetzeak, arrazoia edozein dela ere, ez ditu aldeak salbuetsiko une horretan benetan kudeatuta dagoen energiaren likidazioa, fakturazioa, ordainketa eta erregularizazioa egitetik, hitzarmena indargabetzeko unean egiteke badaude. Betebehar horiek ahalik eta azkarren bete eta likidatu behar dira, kontratua indargabetzen denetik hasita.
- 12.3. Aldeetako batek eskatzen badu hitzarmena alde bakarretik indargabetzea edo hitzarmenaren epea amaitu aurretik hurari uko egitea, hitzarmenari uko egiten dion aldeak bere gain hartuko ditu instalazioa desegiteak eta **ERAKUNDE-ko** instalazioetatik kentzeak dakartzan gastu guztiak. Zehapen hori ordaintzeak ez du salbuetsiko kaltetutako aldeari dagozkion kalte-galerak ordaintzetik, eta aldeek beren hitzarmen-betebeharrak bete beharko dituzte hitzarmena amaitu arte.
- 12.4. **ERAKUNDEA** beste instalazio batzuetara lekualdatuz gero, udal-antolamenduaren eskakizunengatik izan ala ez, **KE-k** aztertuko du ea bideragarria den hitzarmenari eustea kokaleku berrian, eta bi aldeen artean akordio batera iristeko ahalegina egingo da. Instalazioa kokapen berrian jartzea ezinezkoa bada edo bi aldeak ados jartzen ez badira, hitzarmena elkarren arteko adostasunez deuseztatzeko modua adostuko da.
- 12.5. **ERAKUNDEA-k** bere **jarduera eteten badu**, hitzarmenari uko egin diola ulertuko da, alde bakarretik. Uko egitearen ondorioak ahalik eta txikienak izan daitezen, ildo honetako irtenbideak proposatzen dira:
- a.- **B ERAKUNDEAK** horniduraren titulartasunari eutsiko dio titular berri bat agertu arte, eta banaketaren %0,01-era berresleituko da.
- b.- Hornidura-puntuaren titulartasuna aldatzen da **KE-ren** izenaren arabera, titular berri bat agertu arte.
- 12.6. Instalazioak **eskualdatuz gero**, **ERAKUNDEA-k** dagoen hitzarmenaren eta sor ditzakeen karga-irabazien berri emango du. **ERAKUNDEA-ren** titular berriak hitzarmena aldatu ahal izango du, eta beste bat sinatu, honako hauek ahalbidetuz:
- a.- Instalazioa mantentzea titular berriak hura erabili gabe. Kasu horretan, autokontsumoaren gutxieneko %0,01 esleituko litzateke, eta horrek ez du inolako eraginik

izango titular berrian.

b.- Instalazioari eustea eta hura baliatzea, titular berrira egokituko den HITZARMEN berri bat berrikusita.

### **13. ZEINU BEREIZGARRIAK ERABILTZEA**

- 13.1. Hitzarmen honen publikotasunak soilik aukera emango du hitzarmena egin dela eta zer helburu duen adierazteko, baina ez bi aldeek hitzarmenaren barruan adoztutako klausulen edo baldintzen berri emateko.
- 13.2. Aldeek bestearen izenak, logotipoak, webguneak eta bestelako ondare markatu eta identifikagarriak erabil ditzakete hirugarrenei edo bazkideei hitzarmen honi buruz hitz egitean (horrek eskubideak lagatzea edo ematea ekarri gabe), aldeetako batek berriaz horri aurka egin ezean.
- 13.3. Aldeek elkarri baimena ematen diote webguneetan beren erakundeak aipatzeko loturak edo estekak jartzeko, egokituz jotzen badute.
- 13.4. Baimen horiek hitzarmena sinatzen duten aldeentzat izango dira soilik, eta bazkideek eta horien enpresa-erakundeek ez dute adierazitako zeinuak erabiltzeko baimenik izango.

### **14. KONFIDENTZIALTASUNA**

- 14.1. Aldeek konpromisoa hartzen dute hitzarmen honen harira beste aldeari buruz eskuratutako informazio oro ez zabaltzeko eta ez argitaratzeko, ez zuzenean, ez hirugarren pertsonen edo enpresen bidez.
- 14.2. Klausula honetan adierazitakotik salbuetsita geratzen da ZEINU BEREIZGARRIAK ERABILTZEA klausulan ezarritakoa, hitzarmena egin dela jakinarazteari eta horretarako zeinu bereizgarriak erabiltzeari dagokionez.
- 14.3. Aldeek konpromisoa hartzen dute informazioa konfidentzialki tratatuko dela bermatzeko behar diren neurriak hartzeko. Informazio hori hitzarmen honen xedea betetzeko behar-beharrezkoa denean soilik erabiliko da, eta informazioa hitzarmenaren xedea betetzeko behar duten pertsona fisiko edo juridikoek (aldeen zerbitzura daudenak) bakarrik eskuratuko dute. Zehazki, aldeek konpromisoa hartzen dute beren informazio konfidentziala isilpean gordetzen dela babesteko erabiltzen dituzten

neurri guztiak aplikatzeko.

- 14.4. Aurreko paragrafoan ezarritakoaren harira, alde hartzaileak bere gain hartuko du informazio konfidentziala lapurtzeko, desbideratzeko edo galtzeko arriskua; hala, arrazoi horietako edozeinengatik informazio konfidentziala hirugarrenen eskuetara iristen bada, alde hartzailearen arduragabekeriagatik gertatu dela ulertuko da.
- 14.5. Ez da klausula honetan zehaztutakoa aplikatuko alde hartzaileak froga badezake informazio konfidentzialak ezaugarri hauetakoren bat betetzen duela:
- i. Jabari publikoko informazioa zela eskuratu zuen unean. Ez da ulertuko informazio konfidentzial bat jabari publikoko izatera igaro dela informazio horretan interesa duten pertsonak bakarrik ezagutzen badute (interes horren arrazoia edozein dela ere).
  - ii. Informazioa jakin ondoren, argitaratu egin zela edo jabari publikoko izatera igaro zela beste moduren batean, konfidentzialtasun-betebeharra hautsi gabe.
  - iii. Informazioa emateko unean, dagoeneko alde hartzaileak eskuratuta zeukala, legezko bitartekoen bidez, edo legezko eskubidea zeukala informazio hori eskuratzeko.
  - iv. Konfidentzialtasun-betebeharrik ez duen hirugarren batek eman diola alde hartzaileari, fede honez; betiere, alde hartzaileak ez badauka arrazoirik pentsatzeko hirugarren hori ez dela ari fede onez, eta fede onez ari den hirugarren horrek ez badauka –itxuraz– mugarik informazio konfidentziala alde hartzaileari helarazteko.
  - v. Alde hartzaileak modu independentean garatu duela, informazio konfidentziala erabili gabe.
  - vi. Beste aldearen idatzizko baimena duela informazioa emateko.
  - vii. Alde hartzaileari informazioa eskatu diotela eskumeneko administrazio- agintaritzek, agintaritza arbitralek edo agintaritza judizialek, bat etorritz aplikatzekoa den edozein legedi edo araudirekin. Kasu horietan, alde hartzaileak bere esku dituen neurri eta ekintza guztiak baliatuko ditu, betiere indarreko legediari jarraituz, eskatutako informazioa emateari uko egiteko edo, ahal bada, eskatutako informazioaren kopurua

murrizteko, baita informazioa hirugarrenen aurrean pribatu eta konfidentzial gisa tratatuko dela bermatzeko ere.

- 14.6. Konfidentzialtasun-betebeharrek indarrean jarraituko dute alde hartzaileak edozein informazio konfidentzial izaten jarraitzen duen bitartean, eta gehienez **bost (5) urtez**, hitzarmen honen indarraldia amaitzen denetik.
- 14.7. Alde hartzaileak (edo, hala badagokio, bere langile edo aholkulariek) hautsi egiten baditu klausula honen harira dagozkion betebeharrak, kalte- galerengatik kalte-ordaina eman beharko dio informazioa igorri dion aldeari, bere betebeharrak ez betetzeagatik. Informazioa eman duen aldeak hitzarmena betetzea edo indargabetzea eskatzen duen aintzat hartu gabe, alde hartzaileak kalte-ordaina eman beharko dio informazioa eman dion aldeari.
- 14.8. Klausula honetan zehaztutako konfidentzialtasun-betebeharrak betetzen ez badira, ulertuko da hitzarmena modu larrian hautsi dela, hori indargabetzearekin lotuta adostutakoari dagokionez.
- 14.9. Ondorioz, aldeek berariaz aitortzen eta onartzen dute, ordain ekonomikoez gain, informazioa igorri duen aldeak eskubidea izango duela betebehar hori ez betetzeagatik egokiztat jotzen dituen kautela-neurriak eskatzeko.
- 14.10. Aldeek hitzarmen honen harira eskuratutako edo jasotako informazio guztia, hitzarmeneko klausula guztiak barne, konfidentziala izango da, eta ezingo zaie hirugarrenei helarazi, beste aldearen idatzizko baimenik gabe, kasu hauetan izan ezik:
  - i. Aldeetako edozeinen enpresa nagusi edo filial bati, unitate fisikoaren finantza-erakundeei eta kontu-ikuskariei; horiek honen antzeko konfidentzialtasun-hitzarmen bat izango dute hitzarmen honetako beste aldearekin.
  - ii. Bere eskumenen esparruan informazio hori eskatzeko eskubidea duen edozein agintaritzza edo erakunde publikori.
  - iii. Informazioa jabari publikokotzat jotzen denean, eta nagusiki energiaren arloko informazio estatistikoa denean.

## 15. DATUAK BABESTEKO POLITIKA



- 15.1. **KE-k** bermatzen du konfidentzialtasunez tratatuko dituela analisi-, bideragarritasun-, gauzatzeko-, entrega- eta mantentze-faseetan jasotako datu guztiak, eta behar diren neurri tekniko guztiak hartuko dituela datu horien segurtasuna eta osotasuna bermatzeko.
- 15.2. Hitzarmen honetako aldeek konpromisoa hartzen dute elkarri bidalitako mezu elektronikoaren konfidentzialtasuna babesteko.
- 15.3. Datuen tratamenduari lotutako edozein kontsulta, eskaera edo erreklamazio egin nahi izanez gero, **ERAKUNDEA** harremanetan jar daiteke datuen tratamenduari arduradunarekin:

Identifikazioa: *ENTITATE IZENA*

Helbidea: *Helbidea*

Telefonoa:

Helbide elektronikoa: *helbide@elektronika*

- 15.4. **KE-k** datu horiek tratatzearen xede bakarra da **ERAKUNDEA-rekin** lotzen duen hitzarmen-harremana kudeatzea, eta hark dagozkion betebeharrak bete ahal izatea (operatiboak, aholkularitzakoak, kontabilitatekoak, fiskalak eta administratiboak).
- 15.5. Emandako datuak gorde egingo dira merkataritza-harremanak irauten duen bitartean, **ERAKUNDEA-k** bere datuak ezabatzeko eskatzen duen arte eta lege- aginduak betetzeko behar adina denboraz baino ez.
- 15.6. Datuak ez zaizkie hirugarrenei lagako, legeak horretarako behartzen duenean edo **ERAKUNDEA-k** berriazko baimena ematen duenean izan ezik. Hirugarrenei lagaz gero, **KE-k** bermatuko du lagapen hori nahitaezkoa dela hornidura elektrikoaren jardura gauzatzeko, eta hirugarren horiekiko hitzarmen-harremanetan bermatuta dagoela lagatuko datuen konfidentzialtasuna eta pribatutasuna. IV. ERANSKINEAN – HIRUGARRENEI EGINDAKO JAKINARAZPENAK datu batzuk edo guztiak jakinarazi behar zaizkien hirugarrenak zehazten dira.
- 15.7. **ERAKUNDEA-k** datuen babesaren arloko indarreko araudiak ematen dizkion eskubideak balia ditzake; alegia, bere datuak ikustea, zuzentzea, horien tratamendua mugatzea, ezabatzea, lekualdatzea eta datuen tratamenduari uko egitea, baita datuak

tratatzeko emandako baimenetik eratorritako eskubideak ere. Eskubidea du, halaber, erreklamazio bat aurkezteko Datuak Babesteko Espainiako Agentzian, bere eskubideak urratu direla uste badu.

## 16. APLIKATZEKO DEN LEGEDIA ETA GATAZKEN EBAZPENA

- 16.1. Espainiako Kode Zibila aplikatu beharko da hitzarmen hau interpretatzean eta gauzatzean.
- 16.2. Hitzarmen hau interpretatzean eta/edo gauzatzean, edo horren ondorioz, desadostasunak sortzen badira, aldeetako bakoitzak konpromisoa hartzen du arduraz jokatzeko, fede onaren eskakizunei jarraituz; hala, elkarren artean konponbide bat proposatu, negoziatu eta adostea lortu beharko dute **hogeita hamar (30) egun** naturaleko epean, hitzarmena interpretatzearen eta/edo gauzatzearen ondoriozko desadostasuna sortzen denetik hasita.
- 16.3. Ahalegin horiek emaitzarik ematen ez badute eta **hogeita hamar (30) egun** naturaleko epe hori igarotakoan konponbiderik negoziatu ez badute, lehenik eta behin, aldeek EUSKADIKO KONTSUMOKO BATZORDE EBAZLERA joko dute ([junta-arbitral@kontsumobide.eus](mailto:junta-arbitral@kontsumobide.eus)), elkarren arteko desadostasunak ebazteko asmoz. Lortu ezean, aldeek berariaz uko egingo diote egoki dakiekeen beste edozein foruri, eta instalazio kokatuta dagoen Udaltzerriko epaitegi eta auzitegien lurralde-eskumenaren menpe geratuko dira, hitzarmen honen balioarekin, interpretazioarekin, gauzatzearekin, indargabetzearekin edo amaierarekin lotuta sor daitekeen edozein desadostasun, gatazka edo auzi ebazteko.

## 17. BESTE BETEBEHAR BATZUK

- 17.1. Bi aldeek dute beren erakundearen barruan laneko zuzenbidearen arloko indarreko araudia betetzeko betebeharra. Aldeek kontuan hartu beharko dituzte beren jardura gauzatzen duten herrialdeetako lege-xedapenak, nazioarteko arau garrantzitsuak eta lanpostuko ingurumena, osasuna eta segurtasuna kudeatzeko sistemen eskakizunak.
- 17.2. Alde bakoitzari dagokio bere langileekin lotuta bete behar dituen lege- betebeharrak guztiak ezagutzea, bereziki arlo hauetakoak: soldaten ordainketa, Gizarte Segurantzza eta segurtasun-arauak. Aldeetako batek ez du inola ere bere gain hartuko beste aldearen

langileen lan-harremanetik edo segurtasun-faltatik eratorritako betebeharririk, ezta hitzarmen honen xede diren lanak egiten ari badira ere.

- 17.3. Aldeek enpresa-etikaren goreneko maila bete beharko dute. Beren politikek eta jarduketa-arauek bermatu behar dute bete egiten direla beren antolamendu-esparruetan ezarrita dituzten iruzurraren aurkako jarduketa- arau guztiak, eta ziurtatu beharko dute arau horiek eraginkorrak direla eta langileek ere betetzen dituztela.
- 17.4. Aldeek konpromisoa hartzen dute beren langileei jakinarazteko dagokien enpresako gizarte-erantzukizun korporatiboko barne-arau eta -politikak bete behar dituztela, baldin eta aplikatzekoak badira hitzarmen honen harira gauzatzen diren jarduerak egitean.
- 17.5. Aldeek konpromisoa hartzen dute beren enpresa-jarduera gauzatzean zorrotz betetzeko ingurumena babesteari eta zaintzeari buruzko indarreko araudia.

## 18. ASMO-ADIERAZPENA

- 18.1. **A KOMUNITATE ENERGETIKOA-k**, **B ERAKUNDEA-rekin** inplikatu nahi du, gaur egun hornidura elektrikoagatik ordaintzen duten kostuan aurrezten lagunduz.
- 18.2. Hori dela eta, elkarrekin energia berriztagarriak sustatzea du xede, tokian bertan eta ahalik eta modu banatuenean sortutakoak, horrela, kanpoko energia-mendekotasuna murrizten lagunduz, Gipuzkoako Jasangarritasun Energetikoaren Estrategiarekin eta 2021-2030 Energia eta Klimaren Plan Nazional Integratuarekin bat etorritz.
- 18.3. Helburua da alde guztientzako etengabeko hobekuntzak lortzea, gaur egun ematen diren zerbitzuen kalitatea hobetuz eta zerbitzu berrietan sakonduz.
- 18.4. Hitzarmen honekin, onura kolektiboa lortu nahi da: gizarte-enpresetan lana sortzea, udalerrientzat onurak ekartzea tasen ordainketaren bidez, ingurumena hobetzea, kontzientziazioa lortzea hezkuntza-komunitatean eta hortik kanpo, etab.
- 18.5. **ERAKUNDEA** eta **KE-ren** lankidetzaren eta kooperatibismoari lotutako balioen sustapenaren kasu arrakastatsu gisa ikusarazi nahi dira gizartean.

## 19. HITZARMEN BAKARRA

- 19.1. Hitzarmen hau eta bere eranskinak izango dira aldeek hitzartutako zerbitzuekin lotuta egingo duten akordio baliiodun eta galdagarri bakarra. Horrenbestez, hitzarmen honen aurretik xede berarekin egin den beste edozein akordio, kontratu, hitzarmen, eskaintza edo dokumentu baliorik gabe geratuko da.
- 19.2. Hitzarmenaren aldaketa oro idatziz egin beharko da, eta alde guztietako legezko ordezkariak sinatu beharko dute.
- 19.3. Hitzarmeneko edozein klausula baliogabe edo ez-eraginkortzat jotzen bada, horrek ez dio eragingo gainerako klausulen balioari edo eraginkortasunari, eta lotesleak izaten jarraituko dute aldeentzat. Kasu horretan, aldeek konpromisoa hartuko dute kaltetutako klausula ordeztuko duen beste bat adosteko, horren baliokidea izango dena, fede onaren eta kontraprestazioen orekaren printzipioei jarraituz. Aldeetako batek une jakin batean uko egiten badio ezarritako klausuletako edozein betetzeko eskakizunari, horrek ez du esan nahiko hitzarmen osoari uko egiten dionik, eta ez dio eskubiderik emango beste aldeari.

Eta, ados daudela adierazteko, bi aldeek hitzarmen hau sinatu dute, bi aletan eta ondore bakarrarekin.

.....(-en), 2024ko ... (-a) ren ..... (-a) n.

**A KOMUNITATE ENERGETIKOA**

**B ERAKUNDEA**

Sinatuta: **Izen-abizenak**

Sinatuta: **Izen-abizenak**

**Ordez kariaren kargua eta NAN zenbakia.**

**Ordez kariaren kargua eta NAN zenbakia.**



## I. ERANSKINA – INSTALAZIOAREN DESKRIBAPENA

Aurreikusitako eguzki-instalazio fotoboltaikoa **B ENPRESAREN** estalkian bertan jarriko litzateke.

**B ENPRESA** honako higiezin honen jabe da, jabari osoz eta izaera pribatiboz. Higiezin hori erabaki honi V. ERANSKIN gisa (aurrerantzean, "Higiezina") erantsi zaion Jabetza Erregistroaren ohar sinplean agertzen da:

- Deskribapena: [Higiezina inskribatuta dagoen Jabetza Erregistroan inskribatuta dagoen deskribapena txertatu].
- Inskripzioa: [herria](e)ko Jabetza Erregistroan inskribatuta dago [txertatu zenbakia] liburukian, [txertatu zenbakia] liburuan, [txertatu zenbakia] orrian, [txertatu zenbakia] finka.
- Izenburua: [jabeak higiezina erosteko erabili zuen titulua identifikatu (salerosketa, jaraunspena, dohaintza, etab.)]
- Kargak: Jabeak adierazten du higiezinak ez duela inolako karga eta kargarik. [Hipoteka egonez gero egokitu beharrekoa]
- Errentariak eta okupatzaileak: Nolanahi ere, jabeak adierazten du higiezina ez dagoela errentaririk, okupatzailearik edo inolako eskubiderik, eta, beraz, ez dagoela inolako eragozpenik honako lagapen-akordioa gauzatzeko. [Hipoteka edo errentariak egonez gero egokitzeko]
- Katastro-erreferentzia: [txertatu katastro-zenbakia].

## PROIEKTUAREN ARGAZKIA/IRUDIA

Hauek dira instalazioaren datu tekniko eta energetikoak:

<b>INSTALAZIOAREN DATUAK</b>	
<b>Sorkuntza elektrikorako gailuak:</b>	
Sorgailu fotoboltaikoaren potentzia (kWp)	kWp
Modulu kopurua	modulu
<b>INSTALAZIOAREN DATU OROKORRAK</b>	
Instalazioak sortutako energia totala (kWh)	kWh
Autokontsumitutako energia (kWh)	kWh
Energia soberakina (kWh)	kWh

## II. ERANSKINA – BALDINTZA EKONOMIKOAK ETA HITZARMENAREN IRAUPENA

Bi aldeek adosten dute baldintza ekonomiko hauek hitzarmenaren zati bereizezina direla.

### 1. Energiaren banaketaren esleipena:

**B ERAKUNDE-ko** egutegia hartuko da aintzat. Behin lan-egunak eta jai-egunak ondo berezituta energiaren banaketa horrela izango da:

Lan-egunetan:

Jai-egunetan:

//

XX kWp-eko partaidetza esleitzea erabaki dute, partaidetza horren ekoizpena autokontsumitu ahal izateko, urte bakoitzeko \_\_\_\_\_ hurrengo urteko \_\_\_\_\_ (-era), lanegunetan, astelehenetik ostiralera. Sortutako aurrezkiaren ondorioz **ERAKUNDEA-rentzat**, hornidura-fakturan aurreztutako zenbatekoa konpentsazio ekonomiko baliokidearekin edo estalkia hitzarmen honetan adierazitako helburuetarako lagatzeagatik kanonarekin parekatuko da. Ez zaio inolako fakturarik jaulkiko **KE-tik ERAKUNDEA-ri**, inolako kontzepturengatik. Erakundeak jasotako onura ekonomikoa estalkia lagatzeari lotutako zeharkako ondorio gisa hartuko da.



## 2. Finantziazioa

Aukera ezberdinak:

- Diru-laguntza publikoetara atxikitzea.
- ERAKUNDEAK egindako finantzaketaren zati bat, sortutako banaketa-/aurrezki sistemaren bidez konpentsatzen dena.
- Zerbitzuak ematea.
- Etabar.

## 3. Esleipenen berrikusketa

Ahalik eta energia gehiena probestu ahal izateko, **6 hilabetero** berrikusketa bat burutuko da eta esleitutako energia aldatu daiteke. Aldaketa honek hasierako portzentaian aldaketak suposatuko balitu, proiektua finantzatzeko egin den ekarpenean isla izango luke.

## 4. Hitzarmenaren iraupena:

Hitzarmena iraupen mugagabearekin onartzen da, instalazioaren balio-bizitzari lotuta eta aurreko paragrafoan ezartzen diren berrikusketekin.

### III. ERANSKINA – ALDEEN ARTEKO KOMUNIKAZIOA

Aldeetako bakoitzak legezko ordezkari bat edo gehiago izendatu beharko dituzte, baita harremanetarako pertsonak ere beren erakundearen barruan, hitzarmen honen xede den zerbitzua ematearen jarraipen-xedeetarako.

Kontaktuko orokorra – <b>A KOMUNITATE ENERGETIKOA</b>	
<b>Izen-abizenak:</b>	
<b>Saila:</b>	
<b>Telefono-zenbakia:</b>	
<b>Helbide elektronikoa:</b>	

Kontaktuko orokorra – <b>B ERAKUNDEA</b>	
<b>Izen-abizenak:</b>	
<b>Saila:</b>	
<b>Telefono-zenbakia:</b>	
<b>Helbide elektronikoa:</b>	

*Kontsulta eta eskaera guztiak helbide honetara bidalitako mezu elektronikoko baten bidez egin behar dira. Ez da **A KOMUNITATE ENERGETIKO-ko** beste langile edo ekipo batzuen mezurik sartu behar, azken horiek berariaz adierazten ez badute.*

#### IV. ERANSKINA – ALDEEN ARTEKO KOMUNIKAZIOA

**ERAKUNDEA-ren** datu batzuk edo guztiak jakinarazi behar zaizkien hirugarrenen datuak, **KE-k** hitzarmen honetan ezarritakoa bete ahal izateko, honako hauek dira:

**INSTALATZAILEA (IFZ: \_\_\_\_\_):** Lankidetzan \_\_\_\_\_ rekin \_\_\_\_\_: Partekatutako autokontsumoaren erabiltzaileen artean koefizienteak banatzeko kalkuluak egitea.

#### **ADMINISTRAZIO PUBLIKOA:**

## V. ERANSKINA – JABETZA-ERREGISTROKO OHAR SOILA